


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**TOMAS GROS 5**

Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1920

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta sei goi oin dituena, azkena atzeraemana. Harlanduzko fatxada behe oinean, eta entokatua goi oinetan estaldura zeramikoko xehetasunekin. Hormigoizko begiratokiak Tomas Gros e Iztueta kaleetara ematen duten alboetako ertzetan eta kantoiko alakan. Guztiak balkoi jarraituen bidez lotuak lehen eta bigarren oinetan. Kantoiko begiratokia galeria moduan amaitzen da 6. oin atzeraemanean, eta, proiektuan, kupula jaitsi bidez errematzen zen.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak; fatxadako burdineria elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.